

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Dolua



ARITZ GALARRAGA

2020ko udazkenean gertaera tragiko bat gertatu zen: zutabe hauek sinatzen dituenak 40 urte bete zituen –zeozer aurretatu nuen, herabe, 40 urteak bete aurretik egin beharreko gauzen zerrendarekin; eta zin degizuet 40ak bete ondoren ez dudala zerrenda horretako gauza bakar bat ere egin, zutabe friboloak idazteaz aparte–. Pentsa zenbateraino izan zen tragiko, ezen ez bainaiz horri buruz idaztera ausartu urte erdi pasa den arte. Eta tragikoa izan da, ez hainbeste maila pertsonalean, nahiko ondo erori zaizkit 40 urteak, are pixka batean gaztetu ere egin naiz –pentsa, bizikleta estatiko bat erosi dut–; ezpada maila biologikoan. Estatistikak-eta begiratuta, gizabanakoaren bizitzaren batez bestekoa 80 urteen bueltan kokatzen dute gaur egun, gizonezkoengan beti lehentxeago –zalantzarik ez daukat: maskulinitate kaltegarri baten ondorioz; ea ideia noizbait garatzen duan–. 40 urteak lirateke, beraz, bizitzaren erdia, edo erdigunea, batzuek deitzen diote bizitzaren floria: adin bat non lortuko zenukeen ezaugarri positibo guztien oreka –jakinduria, egonarria– eta ezaugarri negatiboen nolabaiteko absentsia –gero eta ohikoagoak diren ajeak gorabehera–. Nik nahiago dut erabili “adin ertaina”, aseptikoagoa, distintzio ukitu bat emateaz gain, hobekien lotzen baitzaio nire izaerari. Dena delakoarekin, Stefan Zweigek idatzi zuen bizitzaren lehen erdia dela igoera, eta bigarrena jaitsiera. Presta gaitezen, hartara, datorkigunerako.

Eta, tira, horiek buruan dituzula, irakurtzen duzu Judith Butler, doluaz esaten dituenak: doluaz egiten dela jasan dugun galerak betirako aldatu gaituela onartzen denean; bizitza gisa kontsideratua izateko bizitza horren doluaz egin behar dela; eta bizitza guztiek merezi dutela dolu bat, ez dagola dolurik merezi ez duen bizitzarik. Nire bizitzaren lehen erdiaren doluaz egin dudala esango nuke, orduan; eta orain aurretik daukadan perspektiba egiten zaidala osoto erakargarria. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



“INPUNITATEAK AMAITU BEHAR DU”

FRANKISMOAREN BIKTIMAK

Giza eskubideen aldeko elkarteak eta frankismoaren biktimak Nazio Batuen Erakundearengana zuzendu dira, salatzeko Espainiako Estatuan oraindik inpunitateak jarraitzen duela eta ikerketa judizialik ez dela egin 1936ko eta horren osteko diktadurako krimenak argitu eta erreparatzeko. 40 urteren ondoren, “ezinbesteko” jotzen dute Espainiako Estatuak aitortzea giza eskubideen urraketa larriak jasan zituztenek eskubidea dutela babes judizial bat izateko. **2021/04/29**

